

# iruner

199. zenbakia. 2011ko azaroa



Gazteen komiki uzta,  
Martindozenean  
ikusgai

**MaKoTai**

Martindozeneako ESKOLA TALDEA  
Taller de cómic de Martindozenea



Karlos Zabala  
irundarrak  
Itzulpengintzako  
Euskadi Saria  
irabazi du



Irungo Kirolaren  
Jaia ospatu da



# Laguntzaileak



Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte eta Erakunde Harremanetarako Departamentuaren laguntza jaso du.



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza jaso du.

## Aurkibidea

### 4.- *Lapikoan*

- Karlos Zabalak Itzulpengintzako Euskadi Saria jaso du.
- Mikel Alonso sukaldari irundarra, Mexikon arrakastatsua.
- Zorrotzailea: lanbideak bizirik dirau.
- Emakumeen historia Irunen (1931-1992).
- Komiki erakusketa Martindozenean.

### 15.- *San Juan-Etxeandiako lanak, amaitzeak.*

### 18.- *Bi hitzetan:* Berri laburrak.

### 22.- *Kuttun gabinete psikopedagogikoa*

Frustrazioa.

### 24.- *Eleak iruten.*

### 25.- *Lerroz leerro.* Irati Jimenez

*Nora ez dakizun hori*

### 26.- *Kultur Agenda.*

### 28.- *Gazte Informazioa.*

# irunero

**Helbidea:** Salis hiribidea, 21 - behea. 20304 IRUN. Tel: 943 63 18 78.

Faxa: 943 63 18 77

[irunero@infotxingudi.com](mailto:irunero@infotxingudi.com)

[www.infotxingudi.com](http://www.infotxingudi.com)

**Argitaratzailea:** TB S.L.

**Erredakzioa**

**maketazioa:** Ana Grijalba.

**Kolaboratzailea:**

Mikel Asurmendi

**Zuzentzailea:**

Xabier Kerexeta.

**Inprimategia:** Antza

**Tirada:** 3.500 ale

**Lege gordailua:** SS-230-94

**ISSN:** 1134-0606

Karlos Zabala, Itzulpengintzako Euskadi Sariaren irabazlea

## “Itzulpena orijinala bezain irakurterraza izan dadila saiatu naiz”



Bi urte eta erdi eman ditu Ivo Andritxen *Zubi bat Drinaren gainean* liburua itzultzen. Uste baino konplikatua gertatu zaio, jatorrian serbieraz idatzitako bertsoa erabili behar izateraino. Azkenean lan borobila lortu du, irakurterraza, epaimahaiaren aburuz.

Euskarara ekarri ditu Karlos Zabalak Bosniako Vixegrad herriko zubiak XVI. mendetik I. Mundu Gerra bitartean bizitako gorabeherak.

- Zergatik aukeratu zenuen obra hau?  
Literatura Unbertsala bildumako obrak itzultzeko, lehiaketa moduko bat burutzen da.

Aurkezten diren idazleek zerrenda itxi bateko lan bat hautatu behar dute. Nik Ivo Andritx euskaratzea erabaki nuen, berezia iruditzen

zaidalako. Idazle handia izan zen; Nobel Saria ere eman zioten 1961ean. Baina, Nobel asko bezala, Andritx ezezaguna da. Gaiaren aldetik erakargarria gertatu zitzaidan. Balkanetan kokatua dago: ez daude urruti, baina aldi berean ezezaguna da bertako historia. Handik iristen zaizkigun berriak beti gatazkekin lotuak daude. Obra honek gatazken jatorria kontatzeko aukera ematen du.



- Euskaratu dituzun idazle gehienak frantziarrak dira. Oraingoan orijinala serbieraz idatzitakoa da.

Horrek konplikazioak ekarri dizkizu? Oso konplikatuak izan da, ia damutzeraino ere! Itzulpena egiteko orduan beste bi iturri behar dira gutxienez. Gaztelaniakoa eta frantsesekoa aukeratu nituen, baina nahikoa ez zirela ohartu nintzen, aldeak baitzeuden. Orduan, ingelese-tik eta italieratik ere egiten hasi nintzen. Azkenean jatorriko bertsioa ere baliatu behar izan nuen. Internetek eskaintzen dituen itzulpen sistemak lagungarri gertatu zaizkit horretarako. Pentsa, ordenagailuko pantailan 6 zutabe nituela lan egiten nuen (hizkuntza bakoitze-ko bana)! Horrenbeste alderatuz denbora asko galtzen da. Bi urte eta erdi eman ditut lanean, uste baino urtebete gehiago.

- Iragan denboran kokatua eta beste kultura bat hizpide ditu. Ezaugarri horiek ere zailtasun iturri izango dira. Irakurlea duela 50 urtekoa ez delako, testua egokitu behar da; baina dena ezin da azaldu, bestela sekulako liburu mardula geratuko litzateke eta. Zailtasun iturri dira elementu kulturalak, zaharrak eta urrutikoak direlako. Horietako asko ez dira jada existitzen ere. Gogoan dut, esate baterako, bazarretan erabiltzen zen persiana moduko baten izena.

Bereziki oroitzen naiz Drinako zubiko pieza baten egur motan bertsio guztiak ez zetozela bat. Azkenean hitz zuzena *ipuru* zen.

- Epaimahaiak zure lana irakurterraza dela eta elkarrizketak sinesgarriak direla nabarmendu du. Hori al zen zure helburua? Jatorriko eleberria oso ona da, irakurterraza, elkarrizketa bizi-koa, indar epiko handikoa.

Estiloa kontalari tradizionalarena da. Ni ezau-  
garri horiek mantentzen saiatu naiz.

- Giza arazo unibertsalak aurkezten zaizkigu. Ikasbiderik erakutsi nahi du? Egileak ez du moraleja garbirik bilatzen; ispi-  
lu izan nahi du, besterik ez. Liburuan argi isla-  
tzen duena da urruti gertatzen diren gauzek eta hartzen diren erabakiek gudan eragina dutela. Horrela gertatu da beti, ez bakarrik gaur egun. Bestetik, beste ideia hau azpimarratzen du: bizitza laburra izan arren eta gizakiok deus ez bagara ere, gauza handiak egiteko gai gara.

- Literatura euskaratzea ogibidea al da?

Lan honek ez du bizitzeko behar adina ematen. Hiru aldiz azkarrago itzuli edo hiru aldiz gehiago kobratu beharko luke itzultzaileak. Afizio bat da, eta ordaina, itzultzailea gogobeta geratzea egindako lanarekin.

- Zer proiektu duzu?

Argitaratuko den hurrengo lana ez da itzulpe-  
na, nik idatzitako umorezko eleberria baizik. Udaberri aldera Elkarrek plazaratuko du. Behin behineko izenburua *Karramarroaren sindromea* da eta Bidasoan gertatzen da konta-  
kizun guztia.

Mikel Alonso, sukaldaria

## “Bidasoarrak gastronomia kontuetan exijenteak dira”

Luis Irizarren eskolako beka bati esker, Mexikora sei hilabetez lan egitera joateko hegaldia hartu zuen irundarrak. Lur hartu orduko, sustraitzen hasia zen. Juan Mari Arzaken eskutik Tezka ospetsuan gorantz abiatu zen. 2006an Bruno Oteiza donostiarrarekin ireki zuen Biko jatetxea munduko 50 onenen artean kokatu da aurten. Euskal-aztekar sukaldaritzak zerua haztatu du.



- Sanmartzialetan Irunen egon zinen proiektu bat burutzeko. Zertan datza?

Sukaldaritzari buruzko gaiak soilik jorratzen dituen *El Gourmet* izeneko argentinar telebista-kanal baten proiektua da. Latinoamerika osoan hedatzen den itzal handiko kanal hau kostaldeko Santiago bidean zehar programa gastronomiko sorta bat grabatu ditu. Nik aurkezle lana egin dut. Ekainaren 30ean Irunen ekin genion grabaketari eta Santiagon bukatu santuaren egunean.

- Zein izan da Irunen egindako erreportajearen edukia?

Jaien testuinguruan alderdi gastronomikoa islatu genuen. Goizeko alardearen ondoren Zabaltzako taberna batean hamaiketako hartu genuen, ohitura hori erakusteko. Gero, gurasoen etxean, amarekin txipiroiak sukaldatu nituen. Hondarribiko Arraunlari jatetxean ere ibili ginen, Mexikora joan aurretik hango sukaldari izan bainintzen.

- Orain dela 14 urte Mexikora joan zinen. Zer aldatu da Bidasoako eskaintza gastronomikoan?

Oraindik ere produktuan oinarritutako gastronomia da. Sekula aldatu behar ez lukeen ezaugarria da hori, jateko modurik onena delako. Seinale ona da Bidasoara etortzen naizenean betiko jatetxeek irekita jarraitzen dutela ikustea. Bidasoarrak exijenteak dira.

- Bidasoatik zer eraman zenuen?

Nire familiarengandik pertsona ona izateko beharrezko balioak jaso nituen. Bidasoan gauzak taxuz egiten ikasi nuen, eta horixe eraman nuen. Gerora maisu izan nuen Luis Irizarren ikasbidearen bizkar-hezurra balioetan oinarritzen zen: garbitasuna, produktua eta lankideekiko harremanak, nagusiki. Sukaldatzen ikas daiteste; baina proiektu bat taldean aurrera eraman ahal izateko, ezinbestekoak dira balioak.

- Mexikora sei hilabeterako joan zinen, baina han geratu zinen. Zerk harrapatu



zintuen?

Hango usainek eta jendearen izaera abegikorak. Profesional onak daude. Han ezkondu eta sema-alabak eduki nituen.

- Biko munduko jatetxe onenen artean 49.a da, eta Mexikoko lehena.

Restaurant aldizkariaren iritiz. Zein izan da giltzarria?

Duela 10 urte produktuetan eta ukidura eta zapore berriko menuetan Mexikoko aintzindariak izan ginen. Baina gure lana ez zen ongi ulertzen. Ereiten ibili garela eta orain uzta biltzen ari garela esan liteke: sukaldaritzaren berriaren gorakada bizi dugu gaur egun. Europan teknika nahiz produktu berriekin pixka bat aspertuak dauden honetan, mundua Mexikori erreparatzen hasi zaio.

- Arzakek Mexikoko Tezka jatetxe ospetsuko sukaldariburu izateko hautatu zintuen. Nolako harremana duzu?

Duela bost urte Tezka utzi zuen, baina harremana mantendu dugu eta etortzen naizenean Arzaki bisita egiten saiatzen naiz. Oraingoan ere, programaren grabaketan parte hartu du. Nik oso maite dut. Bruno Oteizari eta bioi hegoak jarri zizkigun; alegia, aske izaten irakatsi zigun. Berak esaten zigun garrantzikoena produktu zein teknika onak izatea dela, beti ere identitatez bilduak. Baina, horretaz gain, askatasuna behar da. Beraz, arrakasta erdiesteko, sukaldaria jatetxearen jabe izatea giltzarri da.

# Zorrotzailea: lanbide nomadak bizirik dirau

Aitarengandik jaso zuen lanbidea oinordetzan, eta hark ere aitarengandik. Duela 43 urte, txilibitua ahoan eta lanabesak aldean, bideari lehenbizikoz ekin zion. Ordutik, Israel zorrotzaileak ez daki zenbatetan korrituak dituen Valentziatik Asturiasera bitarteko herriak. Zabaldua dagoen sinesmenaren kontra, zalantza zipitzik gabe ziurtatzen du zorrotzaileak ez duela euria erakartzen.



Israel zorrotzaileak 1968. urtean hasi zen herriz herri lanean. Argazkian, Irungo Joaquin Gamon kalean, uztailean.



**T**xingudi Connection ekimeneko GPS turismo gida duten Iphonen erakustaldiak banda zabaleko bidaia teknologikoan murgildu ninduen. Anartean ukipen-pantaila buruan txertatuta nuelarik, kalera irten nintzen. Tupustean, labainak zorrozteko bi harri zituen txirrinda batek denboran atzera jauzi egin arazi zidan. Jabea aldameneko tabernan kafesnea hartzen ari zen gizon txiki beltzarana zela ez nuen duda egin. “Bost minutu besterik ez dizut eskainiko elkarrizketa egiteko”, bota zidan, ministroen ahotan aditzen ohituagoak gauden esaldia.

### 43 urteko ibilbidea

Aitarengandik heredatutako ogibidea ogirik gabeko bidea dela dio zorrotzaileak, lan eskasiaz kexu. *Ogiaren txilibitua* ahoan -hala esaten dio- txirrinda egokitua lagun, Valentziatik Asturiaseraino Espainia erdia korritzen du. *Eta beste erdia? Ez dakit zein dabilen alde haieran. Nirean zorrotzaile bakarra naiz.*

1968. urtean estraineko bira egin zuen, noten eskala gora eta behera joaz bezeroak leihotara lehen aldiz erakarri zituen. Oraindik ere jateko lain ematen dion lanbidea ez dela desargertuko ziur da. “Jakina, jendeak zorrozteko mota guztietako tresnak eta aparatuak erosten ditu, baina azkenean botatzen ditu!” Pieza bakoitzaren truke 3 euro kobratzen ditu -*sorta batengatik beherapena egiten dut*- eta egunero 15 edo 20 bat lan burutzen ditu. Eguna abaildua denean furgonetara trasteak bildu eta bertan egiten du lo.

*Izango dituzu, bada, gertaera bitxi pilo kon-tatzeko, ezta?* Israel niri so, gogoratzen zituen bitartean txintik esan gabe. Ezetz buruaz, samina begietan. *Hain tristeak al dira? Bai.* Sorbatzekin loturiko irudipen lazgarriak asal-datu ninduten.

### Irunen barrena

Katiluko kafesnea hustearekin batera Israelek niri eskainitako denbora agortu zen. Txistuka lanari lotu zitzaion bueltan, Joaquin Gamon




---

“Jendeak zorrozteko  
aparatuak erosten ditu,  
baina azkenean  
botatzen ditu”

---

kalean eguerdi parean. Ez da inor hurbiltzen, ez da inor leihotara ateratzen. *Ondo entzutzen da etxe barrutik nire txistua, bai, horretan zalantzarik ez!* Luis Mariano aldera egin zuen ondotik, baina han ere ez zuen bezerorik orain-go txandan. Biharamunean San Migel auzoan osteratxoa egiteko plana zuen. Burgosera abiatuko zen jarraian. *Irunera hilabete batzuk barru itzuliko naiz.*

Zorrotzailea igarotzen denean, euria egingo duen seinale, dio sinesmen zaharrak. *Hori bai ez dela betetzen!*, argitu zuen esperientziaren metodo zientifikoaz. Zorrotzaileak bakarkako bidea jarraitu zuen. Biharamunean sekulako euri-jasa bota zuen Irunen.

# Irungo emakumeen historia bizipenen bitartez

Irungo Udalak liburu bat argitaratu du, 1931tik 1992ra arte emakume irundarrek izandako bizipenak eta oroitzapenak jasotzen dituen.

Gizarte Ongizateko ordezkari Maite Cruzadok liburuaren aurkepen ekitaldian azaldu zuenez “2008an Udal Arlo hau emakumezkoak hiriaren idatzizko historiara sartzeko egitasmoarekin hasi zen, oso gutxi agertzen zirela egiaztatu ondoren”. Proiektuaren lehenengo urratsak EHUren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren babesarekin



Liburuaren azala

Gure hiriaren  
ahozko historia  
erreskatatu da 38  
emakumeren  
lekukotasunetatik  
abiatuta

egin ziren. Harrezkero, Mertxe Tranchek, Silvia Lozak eta Maria Ruizek osatutako antropologo eta historialari taldea arduratu da gure hiriaren ahozko historia eta memoria erreskatatzeaz, 38 emakumeren bizipenetatik abiatuta.

Haiek kontatu zieten lanaren egileei duela 70 urte Irun nolakoa zen, nola bizi izan zuten Gerra Zibila beren haurtzaroan, gerraondoa nera-bezaroan eta helduaroa 60, 70 eta 80ko hamarkadetan.

Maite Cruzadoren esanetan, “haien testigantzek balio izugarria daukate, gure historia lehenengo pertsonan kontatzen baitigute, eta, gainera, emakumezkoaren begiz; izan ere, ikuspegi hori ez da beti behar bezala entzuna eta aitortua. Kontakizun horiek gertaera historikoak gizatiartzen dituzte, eta aukera ematen digute ume, gazte, langile, ama baten ikuspegia jasotzeko, eta sarritan zoriontsu, inguruan gertatzen direnak gertatuagatik ere”.



Iturria: Irungo Udal Artxiboa .10837



Iturria: Irungo Udal Artxiboa 25957

### Gogoeta

Liburuak gogoeta bat egiten du emakume horietatik gehienak jaio ziren testuinguruaz, generoaren ikuspegitik: Errepublika aurreko gizartea nolakoa zen, eta Errepublikak andreei ekarri zizkien aldaketan garrantzia. Gerra Zibilak eta errepresio frankistak, ordea, aurrerapen haiek eta emakume langileen eskubide-

ak zapuztu zituen.

Lekukotasunak gaztelaniaz eta bertako euskaraz jaso dira, eta liburua Udal Artxiboko argazkiekin osatuta dago. Irudi horietako asko irundarrak emandakoak dira, eta beste batzuk, elkarrizketatuek utzitakoak.

*Historia de las mujeres en Irun (1931-1992)* obraren 500 ale argitaratu dira. HAZen egongo dira salgai.

Martindozenea Gaztelekuko komiki tailerrean lehen urratsak eman zituzten. Gaur egun, arte honek erabat harrapatuak ditu. Komikigile grinatsu hauek *Makotai* izeneko taldea eratu dute, baita euren lana plazara atera ere. Martindozeneko hormetan ikusgai da.



Komikigile gazteen lanak,  
plazara



Ezkerrean, Makotaiko kide bat, Jorge Madejon irakaslea eta Fernando San Martin zinegotzia. Eskuinean eta behean, erakusketako bi lan.



Erakusketa 40 bat lanek osatua da, guztiak ere maila jasoko tailerreko gazteek marraztuak. Gaiaren arabera, bost ataletan banatu da: fantasia, beldurra, manga, zientzia-fikzioa eta superheroiak. Bisitariak komikigileen irudimenetik sortutako pertsonaiak ikus ditzake, bai eta, aldamenen jarri dituzten testuetan, ezauzgarrien inguruko azalpenak irakurri ere. Halaber, komikietako pertsonaia ospetsuak marraztu dituzte, omenaldi gisa.

#### Lana erakusteko ilusio handia

“Ilusio handiz prestatu den erakusketa da”, esan zuen Fernando San Martin Gazteria ordezkariak. “Are gehiago kontuan izanda lehenengoa dela”. Ordezkariaren aburuz, “ekintza honek gure hirian dagoen komikiaren inguruko zaletasuna eta egiten ari den lanaren kalitate handia erakusten du”. Gazteak, zaletasunak zeharo harrapatuak, komikiak hobetu nahian berandu arte lanean jardun duten lekuko izan da taldearen gidari Jorge Madejon tailerreko irakaslea: “Orain emaitza jendaurrean agertzeko gogoia dugu. Gazteak oso inplikatuak daude eta primerako emaitza lortu dute”, adierazi zuen aurkezpen ekitaldian.

#### Foro bat interneten



Makotai (Martindozeneko Komiki Tailerra) taldeko kideek euren jardueren berri ematea dute helburu. Hartara, foro bat sortu dute: [makotai.foroactivo.com](http://makotai.foroactivo.com). Bertan, partaideek taldearen inguruan egin duten aurkepen bat ikusgai da: [makotai.foroactivo.com/tl-presentacion-de-makotai](http://makotai.foroactivo.com/tl-presentacion-de-makotai)



## Komikiaren Erakustaldia, abenduaren 9tik 11ra

Komikizaleen urteko hitzordu garrantzitsuena Komikiaren Erakustaldia da, Ficoban abenduaren 9tik 11ra burutuko dena. Gaztelekuko tailerreko partaideek sortutako PokerFace Elkarteak eta Irungo Udalak antolatzen duten ekimen honetan *PokerFace* aldizkariaren 2011ko zenbakia aurkeztuko da. Argitalpenean Ingumak taldeak sortutako bideojoko baten berri ematen da eta, oparitan, jokoaren lehen zatiaren CDa dakar.

Bestalde, Irungo eta Angeluko komigileen arteko harremanaren ondorioz, Ficoban denon lanak bilduko dituen erakusketa prestatu dute.

---

# San Juango obrak urte hasieran bukatuko dituzte



San Juan-Etxeandia eremuko obrak azken txanpan daude. Urte hasierarako, plazaren urbanizazioa amaitu eta lurraspiko aparkalekua irekiko da. Bi urte baino gehiagoren ostean, irundarrek hiriaren *bihotza* berreskuratuko dute, guztiz berrituta.

**Olaizola**

**Inmobiliaria  
agentzia**

**Salmenta - Alokairuak  
Promozio berriak - Aholkularitza**

Beraketa kalea, 17 IRUN  
Tel: 943 62 65 85  
API 316

[www.inmobiliariaolaizola.com](http://www.inmobiliariaolaizola.com)



Alkatea, obren egoera ikusteko egin zuen bisita batean.

Behin San Juan plazako urbanizazioa amaituta, azken hiru hilabeteetan Etxeandia eremuko zolaketa eta lurrazpiko aparkalekua burutzea izango da helburua. Lur azpiko eraikinak hiru solairu ditu: lehenengoan liburutegia moldatuko da etorkizuneari; bigarrena txandakako aparkalekua izango da, eta hirugarrenean, plaza pribatuenak. Guztira 415 plaza izango dituen aparkalekuko sarbideak amaitzen ari dira, bai ibilgailuenak bai oinezkoenak. Solairu bakoitzak bere sarbideak izango ditu: pribatuenak, Prudentzia Arbidekoa eta Jenaro Etxeandiakoa dira, eta txandakakoarenak, gainontzekoak. Barne-instalazioak (megafonia, elektrizita-

tea, aireztapena...) ia bukatuta daude. Igogailuak jartzea azken urratsetako bat izango da.

Azaleraren urbanizazioari dagokionez, lur azpiko azpiegitura guztiak gauzatu dira. Halaber zoladura berriak jarri dira, bai harrizkoak bai asfaltozko bideak. Argiteria publikoa, hiri-altzariak eta lorategiak baino ez dira falta. Jose Antonia Santano alkateak aurki obaloaren (zuloa) itxitura beiratzatua egiten hasiko direla jakinarazi zuen, "eta horrela behin betiko marrazten hasiko da San Juan plazan berriak izango duen elementurik berezietako baten itxura". Halaber, dagoeneko tailerlean pergolaren egitura eta obaloaren eskudela egiten ari



higer bidea, 6-  
20280  
hondarribia.  
gipuzkoa  
t(34) 943 64 27 12

[arrokaberry@arrokaberry.com](mailto:arrokaberry@arrokaberry.com)  
[www.arrokaberry.com](http://www.arrokaberry.com)







Txandakako aparkaleakua pintatzen ari dira jada.



Aparkalekuaren sarbideetako bat.

ari dira, gero obran muntatzeko. Irunek erdigunea berreskuratuko du. "Hilabete askoko lanaren ondoren, pozik ikusten dugu irundarrok aukeratu genuen San Juan plaza", adierazi zuen alkateak. "Leku berritua, modernoa eta, batez ere, hiritarrek protagonismoa izango dutena". Santanok aipatu zuen hiritarrek ikusten ez duten obraren zatia -hots, lur azpikoa- bertatik bertara ezagutzeko aukera izan dezaten, Udalak urte amaiera aldera ate irekiko beste jardunaldi bat antola lezakeela.

#### Egiteko geratzen dena

Liburutegiaren proiektua -3.000 m<sup>2</sup>ko azalera izango duena- ez dago San Juan-Etxeandiako obren multzoaren barnean;

beraz, beste fase batean laduko du Udalak. Bestalde, Foruen karrikatik hurbil dagoen orubean eraikiko den hotelari buruz, alkateak adierazi zuen esleipena arautuko duen baldintza-agiria aurten zabaltzea aurreikusten dela. Baliatutako formula enpresa bati orubea lagatzearena izango dela aurreratu zuen Santanok. Trukean, hotela kudeatuko duen enpresak kanon jakin bat ordaindu beharko du. Lau izarreko hotela planteatuko da, saltokiak, jatetxea eta halako zerbitzu osagarriak izango dituena. Joan den abendurako iragarrita zegoen biseraren eraispenaren inguruan, alkateak esan zuen lizitazioa laster batean plazaratuko dela.

**gesAR**  
gestoria ARANA  
consultoria de seguros

asesoria aholkularitza  
integral integrala  
ingenieria injenieritza  
seguros aseguruak

Gipuzkoa hiribidea, 26.  
IRUN

**Tel: 943 666 050**

Fax: 943 618 075

[gestoria.arana@garana.com](mailto:gestoria.arana@garana.com)



Plazako obrak, azaroan.

## Empark S. A.-k aparkaleku berria kudeatuko du

Irungo Udalaren bilkura osoak aparkaleku berriaren kudeaketa Empark S.A. enpresari esleitzea onartu zuen. PSE-EEko eta EAJ-PNVko zinegotziek alde bozkatu zuten; Bildu eta EBkoek, aurka, eta PP abstenitu egin zen.

Empark-ek trukean 7.415.776 euro ordainduko dizkio Udalari, baina kontzesioaren epea amaitzean, alegia, 25 urte barru. EAJ-PNVren kritikak baldintza horren ingurukoak izan ziren. “2011ko kontabilitatean esleipenari dagozkion 4 milioi euro diru-sarrera gisa

agertuko dira; baina, berez, diru hori ez dugu eskuratuko 2037. urtera arte”, esan zuen Jose Enrique Corchonek. Diru-sarrera hori aurten erreala izango ez den arren, gastua, bai. Hortaz, azkenean irtenbidea kreditua eskatu beharra izan daitekeela azpimarratu zuen, eta horrek dakartzan interesen ordaindu beharra. PSEk erantzun zuen zuen sor litezkeen arazoak saihesten saiatuko dela. Bilduk eta EBk ezezkoa eman zioten esleipenari zerbitzua azpikontrata baten bidez emango delako

limpiezas  
**txukun**  
garbiketak

C/ General Bergaretxe, 4 - Local 7 - 20104 Irun, Gipuzkoa  
Tel: 943 573 291 - Leire: 667 706 791 - Susana: 618 967 673  
info@txukun.com - www.txukun.com

## Bidasoa XXI, Ane Saseta eta Juanjo Aranburu Kirolaren Jaian sarituak

Bidasoa XXI Igeriketa Elkartea, Ane Saseta igerilaria eta Juanjo Aranburu plater-tiratzailea joan den 3an ospatu zen Kirolaren Jaian sarituak izan ziren. Musika kontserbatorioko auditorioa txiki geratu zen, kirolari eta klubetako ordezkari anitz bertara bildu baitziren.

Ane Saseta, Espainiako txapelduna, emakumezko kirolari onenaren saria eskuratu zuen. Gurasoei eskerrona agertu zien, “urtetan nirekin batera goiz jaiki behar izan dutelako, motxilak eta ogitar-tekoak partekatu ditugulako eta une gozoak eta mingotsak elkarrekin bizi izan ditugulako”.

Jarraian, Juanjo Aranburu igo zen agertokira saria jasotzera; izan ere, skeet modalitatean plater-tiroko munduko txapelduna da eta Londreseko olinpiar jokoetarako sailkatua dago.

Azkenik, 2011an kirol elkar-teen artean Bidasoa XXI Igeriketa Kluba nagusitu zen. Irungo klubean erabakiz ematen den sari hau Santiago Oyarbide Bidasoa XXIeko presidentek hartu zuen. Gainontzeko elkarte eta kirolariei eskertu zien saritu izana.



Ezkerretik hasita, Santiago Oyarbide Bidasoa XXI Elkarteko presidentea, Ane Saseta igerilaria, Belen Sierra Kultura eta Kirol udal ordezkaria, Jose Antonio Santano alkatea eta Juanjo Aranburu plater-tiratzailea.

### Inbertsioak

Jaia Ipso Facto taldeko Mario Simancasek zuzendu zuen. Sarrera gisa, Fortuna, Ayamendi eta Shothokan klubek, hurrenez hurren, eskrima, gimnasia erritmiko eta karate erakustaldiak eskaini zituzten.

Oihana Maritorenak aurkeztu zuen jaia agertokian, umorez agertu ere, teledenda emanaldia bailitzan.

Jose Antonio Santanok Irungo kirolariak azken sasoiaren erditetsitako lorpenik handienak

ekarri zituen gogora. Bide batez, modalitate eta maila guztietako kirolariei euren lana aitortu zien, “garaipena baino areago norberaren ahalgina nabarmendu behar delako”. Alkateak, kinka ekonomiko zaila bizitzen ari garen arren, Udalak kirolaren alde daukan konpromisoa azpimarratu zuen. Ildo hone-tatik Irunen abiatu diren bi obra nabarmendu zituen: Larreaundiko belar artifizialeko zelai berria eta Mahai Teniseko teknifikazio zentroa.

## Iñaki Etxeparek musika eta irudiak uztartzen ditu *Bach eta itsasoa* lanean

Iñaki Etxepare biolontxelotzaile irundarrak musika eta irudiak uztartzen ditu bere azken lanean, *Bach eta itsasoa*, *Cello Suites in Hondarribia* izenburukoan. Bi CDtan, alemaniar musikari ospetsuaren sei suite grabatu ditu, eta DVD batera beste horrenbeste dokumental eka-ri ditu, guztiak ere Bidasoako kulturari buruzkoak, musikaz lagunduta.

“Bach hitzak erreka esan nahi du alemanez. Musikaria ez zen sekula itsasotik hurbil bizi izan. Lan honen bidez erreka itsasoraino eraman nahi izan dut, alegia, Johann Sebastian Bach itsasora hurbildu”.

Dantza garaikidearen bitartez, Bidasoa ibaia jaiotzen den lekutik ur tanta bat Jaizkibeleko hegietaraino bideratzen du ikus-entzunez-



koak. Lehenengo atalean jaiotza agertzen da; bigarrenen, zur-eskulangintza, txotxongiloak eta arrantza sareak. Ondoren, gastronomia jorratu du; gero, kirolak eta historia. Azkenik, arrantzale lanaren txanda da. Guillem Roma errealizatzaileraren eta

Clotilde Amoureux dantzariaren lanaz gauzatutako dokumentalak dira.

Gure eskualdean estreinatu ondoren, Etxeparek mundu zabaleko agertokietan aurkeztu nahi du “Bidasoaren alderdi turistikoa erakusteko tresna baliagarria” den obra hau.



F / O / T / O / K / O / P

FOTOKOPIAK KOLORETAN ETA TXURI BELTZEAN, PLANOËN FOTOKOPIAK, ENKUADERNAKETAK, PLASTIFIKAZIOAK, ORDENGAILUZKO LANAK, KAMISETAK, FAX ZERBITZUA, PAPERDENDA,...

Foruen kalea, 4 - 20302 IRUN

Tel./Fax: 943 63 22 11

E-mail: [fotokop@telefonica.net](mailto:fotokop@telefonica.net)

# Euskaraz hitz egin nahi duenari laguntzeko prest?

Eman dezagun euskara ikasle batek urteak eman dituela euskaltegian. Behin maila jasoa erdietsiz gero, heldu zaio euskara erabiltzeko tenorea. Norekin mintzatu, ordea, inguruan ez badu euskaldunik? Edo aukera izanda ere, zer egin beldurrak eta lotsak gainditzeko? Oztopoei aurre egiteko, Euskal Herrian 60 mintzapraktika-egitasmo martxan daude. Horietako bat Irunen eta Hondarribian antolatzen du Irun Iruten euskara elkarteak, euskaltegien eta udalen laguntzaz.

Horrenbestez, euskaraz hitz egin nahi duen horri -MINTZAKIDEA- euskaraz dakien norbait -MINTZALAGUNA- bilatzen zaio astean behin elkartzeko eta euskaraz aritzeko. Ez dira klaseak, eta mintzalagunak ez dira irakasleak. Hitz egiteko gogoia duten ikasleak ez dira falta; horregatik, antolatzaileek euskaldun osoei dei egiten diete mintzalagun izan daitezen. Bi baldintza baino ez dira bete behar: euskaraz komunikatzeko gu-



txieneko maila edukitzea eta astean ordubete libre izatea. Taldetxo bakoitzak erabakiko du noiz eta zertarako elkartzeko den: ibiltzera joateko, kafea hartzeko, erosketak egiteko... Taldeen arteko topaketak antolatuko dira, Mintzatxokoak izenekoak, baita ekintza osagarriak ere.

**pickin'pack**  
Irun

Bulegoko materiala - Artxiboa - Paper gaiak -  
Altzariak - Ordenagailuak -  
Zerbitzu tekniko propioa -  
Enpresei zuzendutako mantenu zerbitzu integrala

*Material de oficina - Archivo - Papelería  
Mobiliario - Ordenadores  
Servicio técnico propio  
Servicio de mantenimiento integral a empresas*

Lope de Irigoyen, 2 - Irun - [www.pickingpc.com](http://www.pickingpc.com) - 943 666 037

## Zer da frustrazioa? Beharrezkoa al da?

**Frustrazioa jaiotzen garenetik sentitzen dugu, jaioberriaren lehen behar ez asetuak dira gizakion lehen frustrazioak. Amaren sabelean behar guztiak beteak daude, baina jaiotzean jaioberriak hamaika aldaketa sentitzen ditu: gosea, hotza...**



Ondorioz, negarraren bidez bere ondoeza islatzen du, zerbait behar duela adieraziz. Gurasook ezin ditugu haurraren behar guztiak aurreikusi, ezta hauek une berean asetu ere. Horrela sortzen dira jaioberriaren lehen frustrazioak.

Lehen aldi honetan gurasoen sentsibilitatea (haurrak zer eskatzen duen antzematea, jakitea) oso garrantzitsua da. Gurasook lasaitasun, pazientzia, tonu eta doinu goxoz haurra lasaitzen eta bere betebeharrak asetzen saiatu behar dugu. Haurrak ez du ulertzen zer gertatzen den (kotxean ezin garelara berehala gelditu titia emateko, bibe-roia beroegi dagoela...); baina helduaren

maitasun goxoak (besotan lasai hartuz) frustrazio hori eramaten lagunduko dio.

Zortzigarren hilabetea arte helduaren erantzun azkarrek gero eta negar motzagoa eragiten dute. Zaintzaileak haurrari azkar eta sendo erantzuten badio, honek berehala ikasiko du ez duela zertan sakon negar egin behar kasu egitea lortzeko. Jaioberritan frustrazioen ekidite honek izugarri lagunduko dio segurtasuna lortzen, ez baitu gaitasunik gertatzen dena ulertzeko.

Horrela, haurrak bere beharrak asetuak direla sentitzen duen heinean, konfiantzaz eta segurtasunez hazi egiten da, eta per-



tsona helduaren eredu bat sortzen du, atxikimendu figura seguru bat eraikiz.

**HAURRAK FRUSTRAZIOA** intentsiboki bizitzen duen beste garaia 18 hilabete inguruan ematen da: haurraren **AFIRMAZIO** edo **BAIEZTAPEN** aldia. Garai horretan, haurra bere buruaren kontzientzia hartzen ari da, badela badaki eta bere desioak bete nahi ditu. Baina helduen desioekin topo egiten du eta zenbait arau integratzen hasi behar du. Hala ere, haurrak bere desioak ditu eta berea lortu nahi du; alegia, pertsona bezala badela baieztatu nahi du. Ondorioz, helduak baietz esaten badu, berak ezetz esaten du, eta alderantziz. **EZ** eta **EZ DUT NAHI** hitzak bere burua baieztatzeko erabiltzen ditu, ezetzarekin bere boterea adierazi nahi du, bera badela, bere **NORTASUNA** baieztatzen, afirmatzen ari da. Boterea duena, ordea, heldua da, eta onartzeak fustrazioa sortzen dio, amorrua.

“Kasketen” garaiaz ari gara; nik, aldiz, ez dut hitz hori oso gustuko, baieztatzeko beharraz mintzatu behar dela iruditzen zait. Oso gogorra da hurrek garai horretan dituzten jokaerak pairatzea; zerbait nahi badute, oihuka hasi, bere burua lurrera bota eta denbora luzez egon daitezke nahi dutena lortu arte edo nahi dutena lortu ezin dutela onartu arte. Momentu horiek zailak dira guraso eta hezitzaileontzat, gure barrunbea kolokan hasten baita; baina haurrak momentu horiek bizi behar ditu, frustrazioa toleratzen edo onartzen ikasi behar duen garaian gaudelako. Gogoeta bat egin dezagun: momentu horietan haurra eskakizun sendo eta gogor bat egiten ari denean, jende anitzen aurrean zer da pentsatzen duguna???

Gehienetan gure buruarekiko segurtasuna galdu egiten dugu: gaizki hezten ari naiz haur hau? Nire haurra ona da, zergatik egiten du hau? Zer pentsatuko du jendeak? Zergatik egiten dit hau? Zer egiten ari naiz



gaizki?

**EZETZA** beharrezkoa eta koherentea dela seguru bagaude, haurrak mezua argi jasotzen du; kexatzen da, baina errazago onartzen du ezin dela.

**Zein da bidea haurrari FRUSTRAZIOA onartzen erakusteko?** Pistatxo batzuk:

- Hiru urte bitarte haurrei arau gutxi baina argiak ipini behar zaizkio. Gure buruari (bikotearen edo lankidearen adostasunaz, hobe) argi galdetu zeintzuk diren guretzat beharrezkoak diren arauak.

- Haurra kexatzen hasten denean, arnasa hartuta gure burua pazientziaz bete eta segurtasuna islatzen saiatu. Normala da haurrak frustratua sentitzea garai honetan hamaika aldiz esaten baitiogu **EZETZ**; haurraren garapen sozioafektiboan garai hau pasa behar da.

- Haurra ulertzea eta bere frustrazioa onartzea, hitzetan ipini sentitzen duena: “haserre zaude?” “badakit hori nahi duzula, ulertzen zaitut; baina ezin da, sentitzen dut, baina ezin da”.

- Hau ezin dela azaldu, baina, ahal bada, berak onartzen duen bide bat ireki: “gaur ez dago goxokirik, baina eskola ez dagoenean erosiko dugu”

Ez zaitezte frustratu, guk ere ez dugu dena ongi egiten, baina saiatuz goaz aurrera. Ondo pasa uda!!!!

*MAPI URRESTI ORTIZ  
KUTTUN AHOLKULARITZA  
PSIKOPEDAGOGIKOA.*

“Irailak eraila” idatzi du poetak hor nonbait. Neronek “komunikazioaz eta botereaz” idazteko asmoa nuen. Anartean, ordea, lagun batekikoek bestelako eleak iradoki dizkidate. Bozkariozko eleok!

## P. mosketariaren itzulera



Aupa P. (idatzi nion e-mailez). “Nor da P?”, pentsatu duzu, apika. P.-k, lagunak, “apika” orde, “naski” izkiriaturko luke. Beharbada. Agian. Izan ere, P.-k Garaziko Lasa herrian eta Bidasoako Hondarribian baitauzka jatorriak. Bizi, berriz, Hendaian bizi da betidanik. Betidanik edo. Jokoari jarraituz, eman dezagun, P. N. K. dira lagunaren izenen inisialak.

Aupa P. Zer gisa? Ona desio!

Azkeneko hitzak P. N.-ri egindako elkarrizketaren harian igorri nizkizun, lan kontuak... Geroztik, ahitua edo, ez dizut deus idatzi. Aitzaki-maitzaki.

Iragan astean edo, etxeko atalaurrean ikusi zintudan, autoz nindoala. Ikusi batez ongi zinela iruditu zitzaidan.

Hala espero eta desio!

Hemen ari nauzu, kiskun-kaskun. Nahi bai, baina atarramentu gutxi! Bizitza lege! Bestela erranik, c'est la vie! La rentrée!

Anartean, M. eta J.-ri ez diet deus izkiriaturko... Haiek ikusiz gero, nire irriñoa helarazi biei nire partetik!

Izan hadi!

*mkl*

P.-ren arrapostua:

Zure azken e-mailean, La rentrée/Itzulera aipatzen duzu, ea zer esaten digun X. Letek gai honi buruz:

“Udaren amaitzeak

gertakizunen ibilbide ohikoa  
birrerakitzen du.

Malenkoniatsua da itzulera

diogu, bihotza kizkurturik,

baina han, usadioaren egoitzetan

ohikeria epel blaiagarriak

itxaroten digu, ezaguna, etxekoia,

egia esanen bagenu

arimarentzat hain konfortagarria.

Errepikapenak sosegua baitakar

urduitasunean trabatutako

bihotzera, adimenera”.

Xabier Lete. *Egunsentiaren esku izoztuak*

Milesker nitaz oroitzeagatik... Ongi nago zorionez!

Maitatuko nuke “D’Artagnan eta hiru mosketeroak” berriro biltzen bagina, mahai baten inguruan, afari bat dastatuz. Nire gonbidatuak izango zinateke. Jadanik M. eta J. ados dira. Zer diozu?

Aukera ona izango litzateke ere gure literatur asmoak zehazteko etorkizun hurbilari dagokionez.

Laster arte, adiorik ez.

P.

*P. S. : D’Artagnan eta hiru mosketariak Literaturamenturaren taldeko kideak gara. P. iaz Richelieu kardinalarekiko minak kitatzera joan zen Bordelen gaindi. P.-k bere Itzulera iragarri digu, gure bozkariozko.*

**MIKEL ASURMENDI**



# Idazlea(k) ez daki(t)en nora!

**I**rati Jimenez kazetariaren arrastoa hartua nuen. Kazetaritzako bere idazkiak irakurriak –apurrak izan arren–, bere letrek –literatur idazle gisazabaldutako ildoaz eguzteko gogoa izeki zidaten. Hartara, *Nora ez dakizun hori*-rekin menturatu nintzen, iaz egin ere. Eleberriak ez ninduen harrapatu. Ene trenpu eskasari egotzi nion Nora-ren bidean aitzina egin ez izana. Atx!

Udan ekin diot osterera (hamaika liburu ditut pilan emanak, R. S.-ren *Hamaika pauso* berrirakurtzen ari naizela). Honatx *Nora ez dakizun hori*-k iradoki dizkidanak.

Eleberrian barrena nindoala, Iratxe Esnaolaren *Galerna* eleberria laburrekikoa heldu zitzaidan gogora. Enbata hartan galdu nintzen eta ezkor idatzi nuen hari buruz. Orain, honekin ere, antzean gertatu zait. Ez ditut bi liburuak alderatu nahi, ez dute zer ikusirik-eta. Alabaina, hau ere emakume batek idatzia denez, misogino baten antzo sentitu nuen nire burua. Hau malura!

*Galernak* eragindako zirimolan murgildurik, ez nuen liburuaz zertaz zihoan azaldu ere. Honena egin dezadan bederen:

“Martin munduan gaindi ibili ondoren, Bilbora bueltatu da. Erretratu parrasta ekarri du, emakume bera agertzen da beti, erdi ostendua edo. (...) Norak, berriz, irratian dihardu gauez...”. Ipuinak, sorginak eta likantropoak, maitasuna eta magia... Denak batera barneratu zaizkit Noraren ildoan, nahas-mahas. Hau anabasa! Eta ni, eskas, galdua, itota, nora eta nola ekin jakin gabetarik. Iratiren eleberriaren bidez unibertsaltasuna antzean nahi izan dut: gure partikulartasunetik mun-



**Liburua:**

*Nora ez dakizun hori*

**Egilea:** Irati Jimenez

**Argitaletxea:** Elkar

durako izan eta munduaren iradokizunak nireganatzea. Nobelaren zioa izan liteke. Ez Iratirena, nirena diot.

Inpresioa daukat (Igartza saria edota Zubikarai saria, edo beste sariak tarteko) *kleenexko* literatura (barkatu, marka bat publizitatzan ari naiz) jorratzen ari dela gurean. Hots, nago, azkar irakurri eta botatzeko –kontsumozko literatura– idazten dela gaur egun. Eta hori nabarmenagoa ageri zait belaunaldi berriko idazleen liburretan. Ez da erruki kontua, benetan diot, ez penetan. Baina pena hartzen dut. Nork bere kontraesana!

Alegia, literatur iruzkingile izate honetan –kazetari ofizioan ari naizenez– idazle gazteek idazteko duten ahalmena ezagutzen dut. Zoritxarrez, literaturari ekiten diotenean, ez dute literaturak –nire gusturako, preposta– eskatzen duen ardura hartzen.

Literatura idaztean, *egunkariera*-z edo *aldizkaria*-z harago joaten saiatu behar dutelakoan nago. Areago, Iratiren kasuan (barkatu al didazu afrontua Irati, arantza hau zure liburuarekin atera izana), berak *egunkariera*-z edo *aldizkaria*-z idatzitako testuak *Nora ez dakizun hori* eleberriko “literatura” baino askoz duinagoak eta jasoa goak baitira.

*Nora ez dakizun hori* –nire gusturako, preposta–, “egungo” idazlea(k) ez daki(t)en nondik norakoaren isla da.

P. S. Ez sartu liburu hau Iratxe Esnaolaren *Galerna* eleberriaren zakuan. Enkas, diot.

P. S. Ez sartu liburu hau Iratxe Esnaolaren *Galerna* eleberriaren zakuan. Enkas, diot.

**MIKEL ASURMENDI**

# k u l t u r a g e n d a

## Azaroaren 20ra arte

- Euskadiko Kutxaren aretoan, Emiliano Lopeteguiaren margo erakusketa.

## Abenduaren 2ra arte

- Euskadiko Kutxako aretoan Maria Maldonadoren marrazki eskolako ikasleen lanen erakusketa.

## Azaroak 26



- Amaia KZn, 17:00etan, Buenos Aires-ek *Pepo, ¿a dónde vas?* antzeztuko du, Tolosako Txotxongilo Jaialdiaren baitan.

## Azaroak 26

- Irungo Mendizaleek mendi txangoa antolatu

dute Zuberoa eta Nafarroa arteko Pirinioetara. Larrañeko mendatea-Chalet de Pedro ibilbidea egingo dute. [www.irungomendizaleak.com](http://www.irungomendizaleak.com)

## Azaroak 27

- Amaia KZn, 20:00etan, pianoa eta kantua Mireia Pinto eta Vladislav Bronevitzky-ren eskutik.



## Azaroak 27

- Amaia KZn, 12:00etan, Irun Hiria Musika Bandaren kontzertua.

## EXPOMARKET



Abenduaren 3tik 6ra, Ficoban, Expomarket. Hainbat sektoretako erakusketariek parte hartuko dute azokan.

## Argazki erakusketa



Noiz: Azaroaren 18tik abenduaren 11 arte.

Non: Amaia KZn

Irungo Argazkilaritza

Elkartek antolatua, *Irun Hiria* Argazki Lehiaketara aurkeztu diren lan hautatuen erakusketa.

## Hitz Gurutzatuen Txapelketa

- **Azaroaren 26an**, 9:30etik aurrera, Ola Sagardotegian, Euskal Herriko Hitz Gurutzatuen Txapelketa.

Informazioa:

[www.xedera.com/txapelketa.php](http://www.xedera.com/txapelketa.php)



## Udal liburutegiko ekintzak

- **Azaroaren 30era arte**, Jaime Fernandez irundarraren (1891-1953) argazki erakusketa. Izenburua: *Ikuspuntu bat. Hiriaren ikuspegi bat*.



- **Azaroaren 17an**, 18:00etan, Carlos de Agustinen mintegia. Gaia: Erakusleihoetatik urrun dauden liburuak.

- **Azaroaren 21ean**, 19:00etan, Liburuforum, Mertxe Tranchek zuzendua.

- **Azaroaren 21ean**, 19:30ean, idazketa tailerra. (I. atala).

- **Azaroaren 23an**, 17:30ean, haurrentzako ipuin kontakizuna.

- **Azaroaren 24an**, 18:00etan, Carlos de Agustinen mintegia.

- **Azaroaren 24an**, 19:30ean, helduentzako ipuin kontakizuna.

- **Azaroaren 29an**, 19:00tan, irakurketa kluba.

- **Azaroaren 30ean**, 19:30ean, *Unamuno Hendaian* hitzaldia.

- **Abenduaren 1ean**, 18:00etan, Carlos de Agustinen mintegia.

## Bidasoako Zinemaldi Arkeologikoa



**Noiz:** Azaroaren 15etik 19ra.

**Non:** Sail Ofiziala, Amaia KZn.

Pelikula guztiak jatorrizko bertsioan gaztelaniazko azpituluekin proiektatuko dira.

## Azoka

- Zabaltza plazan, 10:00etatik 14:00etara, bigarren eskuko gaien azoka, Txingudiko Zerbitzuek antolatuta.

## Ikus-entzuzkoa euskaraz




- Azaroaren 24an, Amaia KZn, 19:30ean, "Zure Abenturaren Bila" programaren barruan, Mila Gallastegiren eta Asier Aranzabalen ikus-entzuzkoaren emanaldia euskaraz: *Zaldiz Mugarik Gabe: Saharako basamortuan eta Mongoliako estepa eta tai-gan zehar*.

Aldizkariak

**Orrialde hauetako informazio guztia, zabalago, [www.irun.org/igazte](http://www.irun.org/igazte) webgunean.**

### Lehiaketak



- DISEINU GRAFIKO LEHIAKETA.  
Deialdigilea: Beste bat.  
Gaia: Librea. Collageak, margolanak, marrazkiak eta

halako eskulanak kontuan hartuko dira. Epea: 2012ko urtarrilaren 15a. Lanak nora bidali: [concursobestebat@north-company.com](mailto:concursobestebat@north-company.com)

### Lana



- LAN BILA! GAZTE INFORMAZIO Bulegoko web orrian hainbat eskaintza aurki ditzakezu.  
- Gabonetako kanpaina  
- Eski kanpaina  
Kontsulta itzazu!  
[www.irun.org/igazte](http://www.irun.org/igazte)

### Bekak



- ATZERRIKO ENPRESETAN praktikak egiteko mugikortasun-bekak. Deialdigilea: UPV-EHU. Epea: Azaroak 20.



## harpidetza



IRUN  
943 505 444  
943 505 440

Beka, jardunaldi, ikastaro, lehiaketa edo lanari buruz adierazi nahi baduzu, eduki gure bidaltzeko diruzko informazioa sare estera nahiz posta elektronikora.

IZEN-ABIZENAK .....  
HELDIDEA .....  
P.K. .... BEKRIA .....  
POSTA ELEKTRONIKOA .....

Si quieres estar al día sobre becas, actividades, cursos, concursos y trabajo, pidescola y te enviaremos información semanal a tu casa o correo electrónico.

## Kooperante/boluntario gisa lan egin nahi?

Ordainduta

- Garapen lankidetzako teknikari.
- Emaus gizarte fundazioan.
- Administralari postu bat
- Hezkuntza garapenerako koordinatzaile.
- Mexikon, Guatemalan eta Kuban kooperante.
- Hezkuntza eta sentsibilizazioko teknikari.
- Boluntarioak: Calcuta Ondoan elkartean boluntario. Donostia, Bilbo eta Gazteizko hainbat taldetan boluntario.



Epea: Lan-eskaintzaren arabera.

[gipuzkoo@ongdeuskadi.org](mailto:gipuzkoo@ongdeuskadi.org)



### 11 6 11 ZEUK ESAN TELEFONOA

Haurrei nahiz gazteei laguntzeko telefono hau doakoa da eta guztiz anonimoa.

#### Zertarako balio du?

Arazorik baduzu eta norbaitekin hitz egin behar baduzu, edo buruan "buelbaka" dabilzkizun gaiei buruz gure aholkua behar baduzu. Horrez gain, dei dezakezu norbait beste norbaitez abusatzen ari dela ikusten baduzu (jazarpena, indarkeria edo bestelako erasoak).

### Irungo Gazte Informazio Bulegoko neguko ordutegia:

Urriaren 3tik aurrera: astelehenetik ostegunera:  
11:00 -13:30 eta 17:00 -19:30;  
ostiraletan: 11:00-13:30.

## Gazteen artean genero indarkeria prebenitzeko kanpaina

[ezisildu.blog.euskadi.net](http://ezisildu.blog.euskadi.net)

IKUSTEN BADUZU  
ENTZUTEN BADUZU,  
PAIRATZEN BADUZU,

**EZ ISILDU!**



# irunero aldizkaria non eskura daiteke?

## **ANAKA**

ANAKAKO KASINOA  
KUTXA  
BURDINDEGIA (Kutxaren  
aldamenean)  
ANAKAKO AUZO ELKARTEA  
BIDASOAKO OSPITALEA

## **BELASKOENEA:**

TXIMISTA TALDEA (Parrokia)  
BELASKOENeko AUZO  
ELKARTEA

## **ARBES eta PALMERA-MON-TERO**

VICTORIA TABERNA  
(Altzukaitz)  
LA AGRICOLA  
PALMERAKO HAINBAT  
KAFETEGI-TABERNATAN

## **BEHOBIA eta ARTIA**

HIZKUNTZA ESKOLA OFIZIALA  
TRINKETE TABERNA (M<sup>a</sup>  
Juncal Labandibar kalea)  
AZKEN PORTU KIROLDEGIA  
KUTTUNA HAUR ESKOLA  
(Artiako Caro Baroja plaza)

## **ERDIALDEA**

HERRI JAKINTZA (Nafarroa  
hiribidea)  
BRASIL gozo-denda  
ELKAR liburu-denda  
OSKARBI Liburudenda  
EUSKADIKO KUTXA (Kolon)  
KUTXA (Kolon)  
JUBILATUEN ETXEA (Luis  
Mariano)  
VIRGINIA kafetegia  
SIRIMIRI taberna  
KUTXA (Gipuzkoa hiribidea)  
KIOSKO 33 (Argentinari  
Errepublikari)  
HAZ-SAC

FOTOKOP (Foruen karrika)  
GAZTE INFORMAZIO BULE-  
GOA (Foruen karrika)  
EUSKARA Arloa (Foruen karri-  
ka)  
ACUBI (Foruen karrika)  
IZOKINAREN KOFRADIA  
(Kale Nagusia)  
ARANO taberna  
MANOLO taberna  
SARGIA taberna  
AEK Euskaltegia  
ARTXIBOA eta LIBURUTEGIA  
MENDIBILGO MUSIKA  
KONTSERBATORIOA  
ARTALEKU KIROLDEGIA

## **DUNBOA**

TOMA PAN Y MOJA (S.  
Pedro)  
OSASUN ZENTROA  
KUTXA (Nafarroa hiribidea)  
ERKA (Salvador Etxeandia)  
ALDABE paper-denda

## **LAPITZE**

ANBULATORIOA  
AMAIA KZ eta Pio XIIIko kios-  
koa.  
OGIBERRI (Serapio Mujika)  
EUSKADIKO KUTXA (S.  
Mujika)

## **MEAKA**

MEAKAKO Bizilagunen  
Elkartea  
ERROTAZAR  
OLA Sagardotegia

## **OLABERRIA**

ESTEBENEA taberna  
LABEKO ETXEA jatetxea

## **ALDE ZAHARRA**

UDAL EUSKALTEGIA  
ALDE ZAHARREKO BIZILA-

## **GUNEN ELKARTEA**

(Larretxipi)  
EKT (Larretxipi, 12)  
KURPIL KIROLAK (Peña k.)  
HAZIA taberna (Peña kalea)  
ESKINA taberna  
EUSKADIKO KUTXA  
(Urdanibia)  
KULTURA Arloa  
(Ospitale Zaharra)

## **ANTZARAN**

NEKANE paper-denda  
Lekaenea

## **SAN MIGEL**

KOLON burdindegia  
(Hondarribia kalea)  
KUTXA (Zubiaurre)  
EUSKADIKO KUTXA  
(Zubiaurre)  
SAN MIGELEKO AUZO  
ELKARTEA (Luis de Uranzu,  
24)  
ATREZZO (Geltoki kalea)

## **SANTIAGO**

AGUIRRE okindegia (Junkal)  
CANON (Santiago k.)  
SANTIAGO AUZO ELKARTEA  
BIKOTE (Erromes plaza)

## **URDANIBIA**

TANDEM kafetegia

## **KATEA**

KATEKO AUZO ELKARTEA

## **LARREAUNDI**

OKINDEGIA (Eguzkitzaldea k.)  
AUZO ELKARTEA  
(Iñigo Loiolako)  
LARRARTE Harategia  
(Eguzkitzaldea, 17).



Gipuzkoa TB Txingudik  
Bidasoaldean % 100eko  
estaldura du

Kontsultak edo instalazioak  
egiteko:

**Ilargi Antenak**

**943 64 50 33**



**txingudi**





**Biltegi eta bulegoak:**  
Txirrri Maleo 4 - 20100 Errenteria

**Dendak:**  
San Francisco, 15 - 20002 Donostia  
San Francisco, 24 - 20002 Donostia  
Duque de Mandas, 45 - 20012 Donostia  
Isabel II, 15 - 20011 Donostia  
Plaza Aralar, 1 - 20100 Errenteria  
Avda.de Ezkiaga, 1A-1B - 20200 Baosain  
Leizeaga, 3 - 20570 Bergara  
Salvador Etxeandia, 6 - 20304 Irun

**Erka Osagai Elektrikoak S.L.**  
c\ Salvador Etxeandia, 6 Behea  
Tel: 943 62 52 49 Fax: 943 53 73 48  
20304 Irun



**- Industriako eta etxeko instalazio elektrikoak biltegia.**  
**- Lanpara erakusketa.**